



Ehunmilak, Euskal herriko ultratrail G2 handiak, Goierri trail



15 osteguna

17:00etatik- 20:00etara.- **Ehunmilak / G2 handiak.** Dortsalak jasotzea. Gernika Pasealekuko pilotalekuan.

16 ostirala

10:00etatik-13:00etara.- **Ehunmilak / G2 handiak.** Dortsalak jasotzea. Gernika Pasealekuko pilotalekuan.

18:00etan.- **Ehunmilak.** Lasterketaren irteera Loinazko San Martin plazan.

19:00etan.- **Buruhaundiak eta txistulariak.**

23:00etan.- **G2 handiak.** Lasterketaren irteera. Loinazko San Martin plazan.

17 larunbata

10:00etan.- **Iruñako joaldunak** Anzizar auzotik herrigunera.

12:00etan.- **Autodeterminazio eskubidearen aldeko sinadura** bilketa plazapean.

12:00etan.- **Trikiti kalejira** Ezkiaga auzoraino. Ondoren bazkaria.

16:00ak aldera.- **Ehunmilak.** Probaren lehen korrikalariaren helmugaratzea. Loinazko San Martin plazan.

17:00etan.- **Patata tortila** lehiaketa. Ondoren TXOTX!! Eta pintxo jana plazapean.

18:00etan.- **Autodeterminazio eskubidearen aldeko sinadura** bilketa plazapean.

18:30ean.- **Aurtzaka eta Iruñako fanfarrearen kalejira** Anzizar auzotik herriguneraino.

20:00etan.- **Musika eskolako bost pop taldeen emanaldia** Gernika pasealekuan.

18 igandea

Lasterketa amaieran: Herri kirolak (Beasain-Idiazabal) norgehiagoka.

18:00etan.- **Ehunmilak / G2 handiak.** Sari-ematea. Loinazko San Martin plazan.

IKASTAROAK KzGunean

uztailaren 5etik 16era

Internet+e-Administrazioa, 20 ordu.

Ordutegia: Asteleheneretik ostiralera biak barne.

15:00etatik - 17:00etara. KzGunean.

Izen ematea: Beasaingo KzGunean: 943 086 987

uztailaren 19a

Gure Gipuzkoa, 2 ordu.

Ordutegia 17:00etatik - 19:00etara.

KzGunean.

Izen-ematea: KzGunean.

Murumendi Ikastetxea apuesta por la innovación educativa

Murumendi Ikastetxea recibe la mención de honor de los premios Karmele Alzueta del Gobierno Vasco por su labor innovadora

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak Karmele Alzueta sariaren oho-rezko aipamena egin berri dio Beasaingo Murumendi ikastetxeari. Sari honek berrikuntza arloan nabarmentzen diren lanak goresten ditu. "Sari hau Amara Berri sistema LOE markora egokitzeke egin-dako lan berriztatzaileagatik eman digute", dio ikastetxeko zuzendaria den Karmele Arraizak. Murumendik erabiltzen duen metodologiaren arrakastak haurraren garapenaren esparru guztiak lantzean datza. Arraizaren aburuz, "umeei burua %100ean aktibatuta edukitzea" funtsezkoa da: "Sormenari garrantzia ematen diogu

eta kasu praktiko anitz jartzen dizkiegu, beren buruari galderak egin eta ikasketa prozesuan parte aktibo izan daitezen". Amara Berriren filosofia mantentzen duten arren, Karmelek gaur egun ematen diren aldaketek "etengabe moldatzea eta eguneratzea" beharrezkoa dela dio. "Gure ikasketa ereduaren presez eskatzen duten profilarekin lotuta dago. Hemendik ateratzean komunikatzeko eta erantzunkizunei aurre egiteko gai dira. XXI. mendean eskola batek izan behar duena islatzen du Murumendik eta lan hori errekonozitzen du sari honek. Hezkuntza Sistemaren gure metodologia eredu garria izan daitekeela ikustea pozgarria da".



Bakarne Juarez, Añes Pérez irakasleak, Karmele Arraiza zuzendariarekin.



Beasain egunez egun

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA 2010eko uztaila 21



Beasaingo Udala

Paper birziklatu egina 3696-010 L.G. SS-1284-2008



Paper birziklatu egina



Udari begira

4

XABI ALDANONDO:
"Argi nuen ez nuela Tourreko etaparik irabaziko, baina han egotearekin zoriontsu nintzen".

6

BIDAIA AGENTZIAK
Krisia krisi, inork ez dio muzinik egiten bidaiaitzeari.

8

MARKEL OLANO,
Ahaldu Nagusia:
"Ez dut bakarkako lidargoetan sinesten".

Uda iritsi da!



Alkatearen txokoa...

Patxi Plazaola



Uztailari, Garagarriari, udaren bihotza dela esaten zaio sarritan. Eguna moztan hasiko bada ere, askok eta askok luze itxura hartuko dio. Haur eta ikasleak orohar ikasturteari adio esan heinean, aisiak, giroan patxada hartzen baitu.

Ea ba eguraldia lagun izaten dugun udari alaitasunez zukua ateratzeko.

Aldizkariak ere uzta ugaria bildu du herritik esku artean duzun alerako.

Urarekin gozatu nahi duenak, barruan zein kanpoan, kiroldegian izango du aukera paregabea.

Oporretan eta kanpora begira dabilenarentzat ere, badira lanean dihardutenak. Bidaia agentziak dira horren adibide. Aurtengo egoera honek nola eragin ote die?

ONDO PASA OPORRAK!

“Baloreak galtzen ari dira” entzun ohi da maiz edonon. Heziketaren bidez garatzen da pertsona eta horretan dabilta Beasaingo Amen Elkartekoak. Lan eskerga eta beharrezkoa bizkarrean hartu dutena. Bejondeiela!

Hezkuntzaz ari garen honetan Murumendi ikastetxea aipatu behar dugu. Eusko Jaurilaritzak ematen duen “Karmele Alzueta” hezkuntza berriztapen sarian ohorezko aipamena jaso baitu. Ikasleek nabaritutuko dute etengabeko saiakera hori. Zorionak eguneroko lanean hori egia bihurtu dutenei.

Bi herritar esanguratsuren hitzak irakurtzeko aukera ere baduzu ale honetan. Bata Xabier Aldanondo, Frantziako Tourra eta Italiako hiru Giro bizkarrean eta hanketan daramatzana. Esfortzuaren eredu, lehen eta orain. Badute ingurukoek non ikasia. Markel Olano da bestea, politika bide, herrigintzan burubelarri dabilkiguna. Politika kontuez gain tarteka denbora hartzen du beste hamaika gauza egiteko ere.

Abuztuan aldizkariak, beste askoren antzera, atsedean hartuko du. Ondo-ondo pasa abuztua eta irailera arte!

En julio, aunque el día comienza a acortarse, una vez acabado el curso escolar y en espera de la época vacacional, parece que el día da más de sí. Esperemos que el tiempo ayude para poder disfrutar del verano.

Este año el agua será la protagonista en el polideportivo. Tanto las piscinas exteriores como las interiores darán un buen servicio a aquellas personas que quiera disfrutar de él.

En verano, también hay personas que trabajan para los que no se quedan aquí, entre otras, las agencias de viaje. Podréis leer la afección que ha tenido la crisis en su trabajo.

Muchos hablan de la falta de valores que hay en la sociedad. La asociación de Madres de Beasain intenta recuperarlos mediante la educación de sus hij@s. Encomiable la labor que desempeñan.

Hablando de valores, reseñar el premio que ha concedido el Gobierno Vasco al Colegio Murumendi. Premio que realza la labor del colegio en su proyecto educativo y que agradecerán a buen seguro las alumnas de Murumendi.

Entre otros traemos a estas páginas a dos personas que han llevado y llevan el nombre de Beasain fuera del municipio.

La primera, Xabier Aldanondo, durante años ciclista de la ONCE, participe de un Tour de Francia y tres Giros de Italia, ejemplo tanto antes como ahora de sacrificio y pundonor.

La segunda, Markel Olano, actual Diputado General. Además de la política nos contará cuáles son sus aficiones.

En agosto, la revista tomará un respiro, por lo que os deseo un buen verano. ¡Pasadlo bien y hasta setiembre!

Irriargi, Goierriko amei laguntza luzatuz



Garbiñe Etxaniz

“Elkartea orain sortu berri da ofizialki, baina hilabete batzuk daramatzagu elkartzen. Taldea gutxinaka joan zen eratzen, kasualitatez, Nire seme Amets jaio zen unetik

gainean eramaten nuen, une oro, jakin banekien eta, amaren eta haurraren arteko hasierako kontaktua oso garrantzitsua dela. Lehenengo 10 hilabeteak horrela pasatu nituen, nirekin eramaten nuen edonora. Nekatuta aurkitzen nintzen, eta gogorra egiten zitaidan zentzu horretan askatasunik ez izatea. Egun batean, kalean beste ama batek umea poltsan nola eramaten nuen ikusi nuen eta bera ere halaxe ibilia zela azaldu zidan. Asko lagundu zidan niri gertatzen ari zitzaidana bizi izan zuen pertsona batekin topo egiteak. Ama izateak badu bere alde gogorra, askotan idealizatu egiten dugu amatasuna. Dena den, esperientzia zoragarria da eta denei gomendatzen diet. Bilera hauetan ikusiarazi nahi dugu inor ez dela ama txarra askatasun gabezia horren aurrean sentimendu kontrajarriak izateagatik. Ez ulertua sentitzea normala da, bakardade horretan babesa eta laguntza izango dute gure biletera etortzen direnek”.



Maite Riaño

“Poner en común nuestras quejas y experiencias está muy bien. No es la primera vez que participo en grupos de madres y siempre me ha resultado de gran ayuda. Además de eso, compartimos material, por ejemplo, ropa y juguetes. Lo que sí echo en falta es tener nuestro propio espacio, siendo como somos ahora una asociación, tendríamos que tener una especie de oficina. Yo tengo dos hijos, Nahiare de 5 años y Eleder de 3. Aprendo mucho de ellos. La comunicación es muy importante, todos los días hablamos de diversos temas y cada uno tiene su propio espacio. En lugar de buscar culpables, la clave está en explicar qué es lo que ha pasado. Tenemos que ponernos en la piel del niño, y no alrevés. Intento también inculcarles, de forma dinámica, valores en contra del sexismo y la violencia, muy presentes en la sociedad actual”.



Nerea Manzisidor

“Astean behin elkartzen gara gai desberdinen inguruan hitz egiteko eta norberaren esperientzia besteei gerturatzeko. Osasunarekin lotutako gaiak lantzen ditugu, esaterako. Hitzaldiak edota masaje ikastaroak ere baditugu esku artean. Gure helburua ama guztientzat gune bat sortzea da, mahai baten inguruan guztiok elkartu eta gure zalan-tzak argitzeko xedez. Zalan-tza asko sortzen dira umea izan ondoren: beldurrak dituzu, sentimentu desberdinak... horrexegatik zaigu lagungarri besteen bizipenak ezagutzea eta batak besteari laguntza luzatzea. Elkarte sendo bat sortu dezakegu haurren inguruan edozein kezka duten amei laguntzeko; indarrak batu ditzakegu eta ekintza asko antolatu. Ama den orori gomendatzen diot elkartean parte-hartzea”.

“Si pudiese retroceder en el tiempo, volvería a vivir la misma experiencia, no cambiaría nada”

Xabi Aldanondo, Ex-ciclista profesional

Con siete años Xabi Aldanondo se trasladó de Segura a Beasain. Desde chaval encontró en la bicicleta a su mejor aliado. La sensación de libertad que le producía andar sobre ella le enganchó desde muy temprana edad. Pero la cosa no quedó ahí. Tras varios años corriendo en categorías inferiores, en 1989 Aldanondo dio el salto a profesionales, lo que supuso un punto de inflexión en su carrera: desde aquel año y hasta 1994 formó parte del equipo ciclista Once, con el que participó en pruebas como el Tour de Francia o el Giro de Italia. Hoy recuerda aquellos tiempos con cariño y nostalgia. Ahora forma parte de la Asociación Loinatz de Beasain, donde organizan diversas actividades relacionadas con la bicicleta. Los hijos siguen los pasos del aita, ya que compiten a nivel regional en sus respectivas categorías. Lo llevan en la sangre.

Noiztik sortu zitzaizun txirrindularitzarekiko zaletasuna?

Txikitatik gustatu izan zait bizikletan ibiltzea. 13 urte nituela hasi nintzen lasterketetan parte hartzen, garai hartan oparitu zidaten lehenengo bizikleta. Ondoren berri bat erosi zidaten, oraindik etxean dut azken hori.

Eta pixkanaka gorenera iristen joan zinen.

Bai. Afizionatuen mailan hiru urte eman nituen eta 21 urterekin eman nuen profesionaletara saltoa. Once taldean lehiatu nuen sei urtez.

Gogoan duzu profesional gisa egindako lehenengo etapa?

Lehenengoa Andaluziako Itzulian egin nuen. Oso ondo gogoratzen dut estrai-neko etapa hura. Dena den, afizionatua nintzenez hainbat lasterketetan hartu nuen parte profesionalekin.

Nolatan Once?

Afizionatua nintzela Manolo Saiz aukeratzailak fitxatu ninduen. Once-ren lehenengo formazioko kide izateko. Talde hartan nire ibilbide profesionaleko sei urte ederrenak eman nituen. Txirrindularia nintzen garaiko oroitzapen asko ditut.

Esaterako?

Adibidez, profesionaletara salto egin baino urte bete lehenago, 1988an hain zuzen, Seulgo Joko Olinpikoetan hartu nuen parte. Nire bizitzako esperientzia onenetarikoa izan zen hura.

Frantziako Tour-eko edizioen batean ere lehiatu zenuen.

Bai, 1992an Donostiatik abiatu zen Tour-ean lehiatzeko aukera izan nuen. Italiako Giroan ere izan nintzen hiru urtez jarraian.

Tourra edo Giroa, zein froga zenuen kuttunen?

Lehenengoa, dudarik gabe. Frantziako froga bestelakoa da, urte guztian zehar egiten diren lasterketekin alderatuz gero, berezieta da. Niretzat ohore izugarria izan zen bertan parte hartzea, txirrindularitzan dagoen konpetizio garrantzitsuenaren partaide izatea. Argi nuen ez nuela etaparik irabaziko, baina hor egotearekin zoriontsu nintzen.

Bitxikeriaren bat edo beste izango duzu kontatzeko...

Bai, bat edo beste gertatu zait. Gogoan dut, esaterako, taldekide zen Alex Zulle Tourreko lider zela eta helmugarako gutxi falta zitzaizola, zapatila puskatu zitzaion unea. Momentu hartan, eta bi aldiz pentsatu gabe, nire bizikletatik jaitsi eta nire oinetakoa eman nion. Xelebrea izan zen Zulle podioan bi zapatila desberdinekin ikustea.

Zein da txirrindulari izatearen alde onena? Eta latzena?

Alderdi positiboena ezagutzen duzun jendea da, egiten dituzun lagunak. Adiskidetasun hori ez da galtzen urteen poderioz, askorekin dut tratua oraindik. Eta gogorrena osasunak huts egitea da. Oinarritzakoa da kirol honetan, osasuna ez baduzu hondoratzeko aukera handiak dituzu.

Zure aburuz, zer neurritaraino egin dio dopinak kalte kirol honi? Zure garaian horren inguruko halako alarmismoa zegoen?

Dopina hor egon da urte askoan, tranpa egiteko kultura hori atzetik dator. Dena den, eta datuek kontrakoa adierazten duten arren, nire ustez kirol garbia da. Horrenbeste kontrol jasaten dituen kirolik ez dago, ezta kirolaririk ere. Positibo ematen dutenen portzentaia txikia da. Hala ere, positibo ematen diona ezin da zuritu eta zigorra ezartzea merezi du.

Zein da gogokozen zenuen txirrindularia?

Marino Lejarreta izugarri miresten nuen. Taldekideak izan ginen urte askoan. Momentu ugari bizi izan genituen elkarrekin. Bere izaeragatik eta profesionaltasunagatik nuen gustuko, oso lagun nuen.

Beasain kirol honen jarraitzaile asko dituen herria dela esango zenuke?

Ez. Ez dut uste afizio handia dagoenik. Txirrindularitzaren inguruan



ekitaldi asko antolatzen dira, baina ez da bereziki jarraitzaile asko dituen herria. Ea hemendik aurrera txirrindulari beasaindar gehiago ateratzen den.

Zergatik txirrindularitza? Zerk bultzatu zintuen kirol horretan jardutera?

Askok gustatzen zait bizikletan ibiltzeak sortarazten duen askatasun sentazio hori; naturarekin sortzen den kontaktua ere berezia da niretzat. Ez zaizkit batere gustatzen gunen itxietan egiten diren kirolak, nahiago ditut atez kanpokoak.

Beasaingo gazteei bizikletan aritzeko mezua igorriko zenieke?

Bai, txirrindularitza ezagutzera bultzatuko nituzke. Kirol ederra da eta adiskidetasunean oso aberasgarria; hainbat lekutako jendea ezagutzen duzu. Gainera lasterketak ez dira horren gogorrak, ez dute zertan beldurrik izan behar. Probatzeko gogoia duenari Loinatz Elkartera gerturatzeko gonbidapena luzatzen diot.

Sobre dos ruedas y en familia

Xabi Aldanondo se siente orgulloso de que sus hijos muestren interés por el ciclismo. “No sé si mi afición por este deporte les ha llevado a practicarlo. Tal vez sea porque es lo que han vivido en casa, y eso les ha podido influir de alguna manera”. Iñaki, el mayor, tiene 16 años y actualmente corre en la categoría de cadetes. Patxi, de 14, lo hace en infantiles. De momento están conociendo de cerca los entresijos de esta modalidad deportiva, y les gusta. Tal vez un día lleguen hasta donde llegó su padre, o puede que más lejos. Pero de momento, ¡Zorionak a los tres!

Fotografía del grupo ciclista Once en el Tour de Francia año 1992.



Le
de TOUR
FRANCE



"A patear el mundo"



Aunque los bolsillos no están para bromas, los beasaindarras no han arrojado la toalla. Aunque se lo piensen más, acaban comprando los billetes que les llevarán a aquel destino con el que han soñado o, al menos, pueden permitírselo. Abróchense los cinturones que nos vamos.



➔ Iker Garmendia, Abio bidaiak.

"A una familia le recomendaría un crucero"

"Iaz gehiago antzeman genuen krisia. Ondo ari gara. Jendeak eskaintzak eskatzen ditu baina hori betikoa da. Mediterraneora eta irletara dira gehien eskatzen dizkiguten bidaiak. Europara ere bai. Aurtan, adibidez, tren transiberiarra hartu dute lau lagunek, Errusia, Mongolia eta Txina zeharkatzen ditu. Jendeak errazago jotzen du hegazkina hartzera baina... Umeekin joateko itsas-bidaiak oso ondo daude, gainera prezioaren barruan otordu guztiak sartzen direnez kasu askotan, ondo ateratzen dira diruz. Gomendatzen hasita, familia bati itsas-bidaia bat gomendatuko nioke eta bikote bati Afrikan barrena safari bat, gero Sheycheles irletan amaitzeko. Edota Zeelanda Berria autokarabanaz".

"Quizás el año pasado notamos más la influencia de la crisis".

"Este año cuatro amigos van en el tren Transiberiano, una red que conecta la Rusia europea con las provincias del lejano Oriente ruso, Mongolia y China".



➔ Itziar Gil, Eroski bidaiak.

"Lo que antes vendías de una sentada, ahora te lo tienes que currar, pero no se priva nadie"

"Aurtan asko ari gara saltzen itsas-bidaiak, irletako oporraldiak, Menorcara, Ibizara, Kanariar uharteretara... Tunisia ere asko eskatzen digute eta baita Europatik barrena zirkuituak ere. Inork ez duena nahi Grezia da. Koadrilek, berriz, Karibera joan nahi dute aurtan. Txina ere puntan dago, horia modan jarri da. Eta noski, eztei bidaiak sekulakoak izaten jarraitzen dute. Hala ere, lehen bikoteek Estatu Batuak eta Polinesia bisitatzen bazituzten, orain, agian, Estatu Batuak eta Karibe uztartzen dituzte, askoz ere merkeago ateratzen delako. Baditugu hiruzpalau hilabete sabatiko hartu eta mundua ezagutzera ateraren diren bezeroak ere "orain egiten ez badugu, sekula ez dugu egingo" pentsatuta. Noski, krisia antzematen da. Jendea sartzen da, galdetzen du, begiratzen du, alde egiten du, hurrangoan berriro bueltatzen da, gehiago pentsatzen du... lehen di-da batean saltzen zenuen, orain askoz ere gehiago kostatzen da, baina azkenean denak ateratzen dira, nahiz eta gutxiago gastatu".

"Un destino que ha caído en picado es Grecia. Y China es, este año, la bomba. Lo amarillo está de moda".

"Los viajes de novios siguen siendo a lo grande, aunque si hace tres años te pedían Estados Unidos con Polinesia, ahora te piden Estados Unidos con Caribe, que supone mitad de precio".



➔ Izarra Urdaila, Urraki bidaiak.

"Algunos vienen con las ideas claras, otros con un par de destinos en la cabeza y hay quien viene con un mapamundi"

"Gu aurtan azken momentuan jendea ibiliko delakoan gaude. Egia da jendeak gehiago begiratzen duela baina azkenean erosten bukatzen du. Batzuk dena garbi dute. Egun honetatik hontara halako tokian egon nahi dut. Beste batzuk pare bat leku izaten dituzte buruan eta beste asko mapamundi batekin etortzen dira. Niri ikaragarri gustatzen zait azken hauekin egotea. Errazenak dira. Lehen ere jendea animatzen zen baina beharbada adin batetik aurrerakoak, adibidez, ba Benidormera edo Saloura joaten ziren. Orain, seme-alaba helduak dituzten bikoteak-eta, beste gauza batzuk ikusi nahi dituzte eta gazteak oso ausartak dira jaso duten hezkuntzagatik. Hegaldia hartzen dute beste ezer gabe eta kito. Baina ez dago toki arrarorik. Daude joan ezin zaitezkeen lekuak, Afganistanera ezin zara joan, edo Iranera joateak bere zailtasunak ditu... baina gainontzean ohikoa bihurtu dira Vietnam, Indonesia, Tanzania, Hegoafrika... Egia esan, distantzia luzeko hegaldiak beteta daude. Abuzturako ezer gutxi geratzen da, eta daudenak oso garesti daude jada".

"Ya no hay destinos raros. Hay países a los que no puedes ir, pero no quedan destinos raros".



➔ Sonia Rico, Usurbe bidaiak.

"Jendeak atetik sartu orduko eskaintza bereziak eskatzen ditu"

"La gente antes de entrar por la puerta te pregunta por una oferta, pero no para ya, si no de aquí a octubre. Hay mucha gente que aprovecha la última semana de junio porque la temporada alta empieza a finales, y muchas familias luego pues se van a la casa del pueblo o se quedan en sus casas. Pero cada vez está más escalonado. Antes, todos iban en agosto y ahora la temporada dura del 20 de junio al 15 de septiembre. Hoy en día, además, con los niños se sale a todas partes. La gente está acostumbrada a salir, a moverse, y no sólo en verano, sino cada vez que puede, en Semana Santa, en agosto y en cualquier puente. En Navidad también se viaja cada vez más".

"Orain jendeak urte guztian bidaiatzen du".

"Jendea ateratzera oso ohitua dago, eta ez bakarrik abuztuan".

→ **MARKEL OLANO,**
Diputatu Nagusia

Comprometido políticamente desde su adolescencia, Markel Olano tiene bien interiorizado que el político tiene ticket de ida y vuelta, y está convencido de que “ése es el punto de vista más sano” aunque su partido ya le ha presentado como el próximo cabeza de lista para las elecciones forales, por lo que le queda un rato para apearse. Para coger fuerzas, se va al monte con su cámara de fotos. Apuro las preguntas para que le dé tiempo a subir a Usurbe y aprovechar una preciosa tarde de verano.

“Gipuzkoarrok pieza batekoak gara, ez alanbreko txoriak”

Filosofo politikoa ala politiko filosofoa zaitugu?

Esango nuke bizitzan faseak daudela eta hasieran seguruenik filosofo politikotik gehiago izango nuen eta orain, berriz, politiko filosofotik.

Zer egiten du diputatu nagusi batek agendak atsedendaldi bat ematen dionean?

Nik garbi daukat gure ofizioa oso gogorra dela, tentsio handia sortzen du eta gainditzeko nik ariketa fisikoa egiten dut, ahal bada, naturan. Hori da nire ihesbidea. Nire lanak dedikazioa eskatzen du, gazi-goza da, eta ezin bestekoa da osasuntsu egotea gorputzez eta arimaz.

Zein da Olano diputatuaren eta Markelen arteko ezberdintasuna?

Esan ohi didate dudari irudi publikoa goxatu egiten dela harreman pertsonalean. Pertsona ezagutzeak beste dimentsio bat ematen du.

Adar askoko zuhaitza edo autobide bat da bizitza?

Hori norberak erabakitzen du. Niretzat autobidea da. Zenbait ideia eta konpromisok koherentzia bat ematen diote nire bizitzari, edo orain arte, behintzat, horrela izan da. Ez da egunero barreiatzen edo aldatzen den zerbait. Enborrekoa naiz ni.

Zergatik aukeratu duzu politika?

Politikak aukeratu nau ni. Konpromiso politikoa sortzen da herri atxikimendu bat dugulako, baina hori ez da gehienetan bizibide eta lanbide bihurtzen. Nik gazte-gaztetatik izan dut konpromisoa eta zenbait ardura izateko aukeratu naute. Ez naiz izango horretan politikoki zuzena. Bizimodu hau gogorra da eta kritikoa naiz, eta kritikoa naiz baita, politika desitxurata duen gizartearekin.

Norena da hor errua?

Gizartearena, ez. Arlo politikotik eta erakundeetatik jendea urrundu egin dugu, seguruenik hori komunikabideen esku utzi dugulako.

Jendearengana hurbiltzeak zer esan nahi du, kalera atera eta txikito batzuk hartzea?

Batzuei ondo ateratzen zaie hori. Nire kasuan, kalea oso zabala da, beraz, planifikatu beharra daukat, orokatu, eta momentu honetan ekitaldiak antolatzen ari gara jendearekin egon ahal izateko. Txikitoak hartzea ez da nire estiloa. Jakin behar da zein den norberaren gunea.

Inoiz defendatu behar izan duzu defendaezina zena diputatu trajea zeneramalako?

Arduraren ikuspegitik, herri ordezkaritza puskatzen duen urratsik ez dut emango. Hori litzateke azkena. Baina nire politika egiteko era oso taldekoa da. Ez dut bakarkako lidergoetan sinesten eta horrek malgutasuna eskatzen du. Jarrera horizontala dut.

Eta jarrera horregatik ere kritikatu izan zara, lidergo falta duzula eta... Ez da erraza izango neu-

rria bilatzea.

Eraginkortasunari begiratu behar zaio. Kultura politikoa berri hau eraginkorragoa da. Orain arteko jarrerak liskarra baino ez dute ekarri eta liskarrak erronka eta proiektu asko bertan behera uztera eramaten gaita. Gauzak egiteko modua aldatzen saiatzen ari gara, ko-laborazioa, gertutasuna eta jarrera malgua sustatuz.

Gipuzkoarra oso kritikoa dela diozu...

Oso kritikoa da eta konprometitzeko ahalmena du, eta biak lotuta doaz. Kritiko konprometitua aberasgarria da, baina badira salbuespenak eta dira konprometitzeko gai ez diren kritikoak. Bereiztu egiten ditut batzuk eta besteak.

Nola ulertzen duzu politika? Jendearen arazoak konpontzeko tresna gisa?

Aurpegi desberdinak ditu. Administrazioaren funtzioetako bat beharrik gehien dutenen alde egitea da, gizartea orekatzea. Baina orekatu ahal izateko aberastasuna banatu egin behar da eta horretarako, aurretik, aberastasuna sortu behar da, beraz, lehiakortasuna bermatu behar da, sare ekonomiko eta azpiegitura sendoak eduki eta nortasuna babestu: kultura, hizkuntza...

Zein da politikak eman behar duen jauzia gazteria poltxikoratzeko?

Gazteak ez dira euren gurasoengandik asko ezberdintzen. Gizarte bezala akomodatu egin gara eta horrek aisialdiari eta indibidualismoari ematen die protagonismoa, baina hori mendebaldeko gizarte guztietan gertatu da. Gazteek euren burua eraginkor ikusten duten neurrian, konpromisoak hartzen joaten dira. Beharbada ez da gazteen errua, baizik eta ez jakitearena erronka horiek erakargarriak egiten.

Zuk 15 urte zenituen EGIN sartzea erabaki zenuenean. Futbolari txarra zinelako agian?

Bete-betean asmatu duzu. Beasaingo taldean ibili nintzen futbolean eta gogoan dut behin Loinaz zelaian Olabarriaren aurka jokatzen genuela. Txiki Begiristaini markatzea tokatu zitzaidan. Ikaragarriak egin zizkidan, nahi zituen guztiak. Orduan konturatu nintzen futbola ez zela nirea. Talentu ikaragarria zuen baten aurrean, nire mugak zeintzuk ziren garbi ikusi nuen.

2007ko uztailaren 6an Batzar Nagusietako plenoan aukeratu zintuzten diputatu nagusi. Gau askotan kendu dizu loa horrek?

Ez, lo galerarik ez dut izaten.

Zure blogean, galdera bat egiten duzu: “Zer nahi dugu gipuzkoarrok?”. Badakizu? Hartu diezu pultsua gipuzkoarrei?

“Zenbat buru, hainbat aburu”, esaten da. Gipuzkoarrok pieza bakarreko jendea gara eta hori bizitzako esparru guztietara hedatzen dugu. Lanean taxuzkoak gara eta bizitzan ere bai. Ez gara alanbreko txoriak eta horrek batzuetan serioegiak izatera ere eramaten gaitu. Jende konprometitua, zorrotza eta kritikoa. Bizitzak lau egun irauten ditu eta zerbait taxuzkoa egiten ez baduzu, zertarako?

Hurbilekotzaa, humanista, apala... mahaian danbateko asko eman behar izan duzu?

Nahi izan ditudanak baino gehiago. Tokatzen zaizun arte ez da erraza hori nozitzea. Zu zara azken adreilua eta zuri tokatzen zaizu erabakia hartzea eta batzuetan, danbateko bat eman behar izaten da, nahiz eta ez den niri gustatzen zaidan eszenatokia.

En dos palabras:

¿Qué libro tiene ahora mismo en la mesilla?

“Banking on the future”, que me dio el director del London School of Economics.

¿Con qué canción relacionaría Beasain?

Beasain es un pueblo industrial, con mucha fuerza, por lo tanto, no le pondría una obra melódica. Mejor, una de Berri Txarrak.

Un lugar de Beasain...

Igartza.

El mejor consejo que le han dado...

El que le dio a Jose Miguel Barandiaran su madre, que el manzano cuantas más manzanas tenga, más humilde es.

Una crítica que le ha dolido.

No se han metido demasiado conmigo... pero, la peor crítica siempre es la crítica injusta. Las verdaderas hay que aceptarlas e intento aceptarlas.

La quiniela para las próximas elecciones...

Creo que la izquierda abertzale podrá presentarse a las elecciones y que las ganará el PNV.

La última cumbre que ha hecho...

La de Ganbo.

La última fotografía...

La que le hice en las Bárdenas a un zorro.

¿Qué le pone la piel de gallina?

La música. Me encanta el rock, lo clásico y también el folk irlandés.

¿Qué te produce una lágrima?

Una lágrima es siempre fruto de la emoción. No lo sé. Es algo que me cuesta mucho.

Arratoien aurkako borrokan, GUZTIOK BAT

Hace años que en Beasain surgió la problemática en torno a la aparición de ratas en el Oria; en concreto, estos roedores se apiñan en la orilla de los estanques de patos ubicados en el río. Muchos viven en las alcantarillas, otros se amontonan en los bordes del río, donde se concentra la mayoría de residuos que los viandantes tiran. El Ayuntamiento pide la colaboración de la ciudadanía para erradicar este problema, que podría causar mayores perjuicios personales y medioambientales a la larga.

Juanjo Armendariz,
desinfekzioan, desintsektazioan eta
desratizazioan aditua

“Guztion lana da arazo honi aurre egitea. Arduratsuagoak eta kontzientzia gehiagokoak izan behar dugu. Ahatei janaria ematean arratoiak agertzen dira, eta honen aurrean herritarrek neurriak hartu beharko lituzkete”.

Badira urte batzuk Beasainen arratoiak agertzen hasi zirela. Baina arazoa gutxitu beharrean, urteak joan ahala areagotu egin da. Gaur egun, Oria ibaiaren hainbat gunetan ikus daitezke arratoiak ahateekin “elkarbizitzen”. Azken hauei janaria kendu eta beren ingurumenaren jabe egiten hasiak dira. Juanjo Armendariz desratizazioan aditua da eta urte asko daramatza animalia horiekin lanean. “16 urte egin ditut jada lan honetan. Garai hartan arazoak existitzen zuen eta gaur egun jarraitu egiten du. Zortzi astetik behin herriko estolda guztiak ikuskatzen ditut, arratoiak ugaltzeko denbora hori behar dute eta”. Armendarizek arazoaren zergatia ematen du: “Jendeak ahatei ogia botatzean, arratoiak horren bila ateratzen dira. Ez da komenigarria ahatei jaten ematea. Horren ondorioz, arratoiak gerturatzen dira bertara eta ahateentzat arriskutsua izateaz gain, jatekoa ere kentzen diete”. Halaber, lan handiena ur zikinetan izaten duela berretsi du. “Inguru horietan pilatzen dira gizakiok botatzen dugun janaria eta bestelako zakarrak”. Oria ibaiak Beasain zeharkatzen duen ibilbide osoan zenbait puntu larri aurki daitezke. Hala, Juanjok Igartza Jauregiaren aurreko gunea eta Gipuzkoa Plaza jartzen ditu adibidetzat, zonalde horietan ohikoa baita herritarrak ahatei janaria botatzen ikustea.

Medidas que podemos adoptar para solucionar el problema:

Es muy importante mantener limpio el río. Es responsabilidad de todos protegerlo y ser conscientes del problema.

No hay que echar al río ni pan, ni bolsas de golosinas ni ningún otro tipo de residuos.

En el hogar hay que evitar tirar la comida por el retrete. Los residuos orgánicos van directamente al río y favorecen la acumulación de ratas.

No es conveniente dejar en el río un pato criado en casa. Según los expertos, hay demasiados patos en el río y muy diferentes entre ellos. Estas aves tienen que seguir un proceso natural para su desarrollo y el ser humano no tiene que participar.

Un verano de sol y agua en Antzizar

A pesar de la climatología adversa que impidió la apertura de las piscinas exteriores para el 15 de junio, los beasaindarras pueden ya disfrutar del buen tiempo dándose un buen chapuzón o relajándose al sol. En Antzizar desean que sus usuarios tengan un verano inolvidable y, por ello, se han cerciorado de ofrecer el mejor servicio a sus usuarios. Así, la piscina exterior permanecerá abierta, todos los días y de forma ininterrumpida, desde las 10:00 hasta las 20:00 horas hasta el próximo 15 de septiembre.



1

Erkuden Etxeberria - Bazkidea

“Ahal dudan guztietan etortzen naiz igerilekura. Egia esan, jendea hona etortzeko eta uda on bat pasatzeko gogo handiz ikusten dut. Dena den, ura hotza dagoela eta igerilekua txikiagia dela iruditzen zait. Instalazio aldetik primeran dago, eguna pasatzeko aproposa da gune hau”.

2

Gema Azpiazu - Bazkidea

“Neguan sarritan etortzen naiz kiroldegira, erlaxatzeko bertako ur-txorroak proposak dira eta. Orain eguraldi ona egiten duenez, barruan bainatu beharrean kanpoan egiten dut eta, bide batez, eguzkia hartzen dut. Ni Ormaiztegiakoa naiz eta uda han igarotzen dut. Baina egun gutxi hauek Beasaingo igerilekuan aprobetxatuko ditut, instalazio bikainak baititu. Beasaindarrek zortea dute kanpoko igerilekua edukitzeaz. Gaztea nintzenean umeekin Donostiaraino joan behar izaten nuen hondartzara, hemen ez baitzegoen ezer”.

3

Leire Albarran - Bazkidea

“Orain dela gutxi arte igerileku itxian jardun dut igerian, eguraldi kaxkarra izan genuen eta. Orain eguzkia atera denez kanpoko igerilekuaz gozatzera etorri naiz. Urtero etortzen naiz eta oso gustura. Askotan hemen pasatzen dut egun osoa, bazkaldu, bainatu eta eguzkia dagoela aprobetxatzen dut lainotu baino lehen”.

4

Nerea Zamorano - Bazkidea

“Udan Beasainen egiten ditudan egunetan igerilekura etortzen naiz. Barruko eta kanpoko instalazioak ederki daude. Herrian horrelako igerilekurik izango ez bagenu ez genuke uda aprobetxatuko, egun guztia tabernan sartuta pasatzeko hobe hondartzara joan. Kanpoko igerilekuak berde gune zabala du eta bertan eguzkia hartzea gustatzen zait. Ondoren bainatu egiten naiz”.